EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# Erabiltzaileak ONLINE erregistratzea

## – Laguntza-dokumentua –

2016ko apirila

# AURKIBIDEA

TOC



# 1 Sarrera

Herritarrek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean posta elektronikoko kontu bat zer-nola erregistra dezaketen (sartzeko identifikatzaile gisa) azaltzen du dokumentu honek; kontu hori bekak/laguntzak eskatzeko eta izapidetzeko prozesu osoan zehar erabili ahal izango dute.

# 2 Erregistro-fasea

Hitzaurrean adierazi den moduan, erregistro-faseak posta elektronikoko kontu bat adierazteko aukera ematen die herritarrei, modu horretan, ondoren onarpen-eskaeren bilketa-prozesu osoan (berria) eta mantentze-prozesuan (kontsulta, aldaketa eta ezabaketa) zehar erabili ahal izateko.

Posta elektronikoko kontu bat erregistratzeko prozedurak bi urrats ditu:

## 2.1 Posta elektronikoko kontua/pasahitza erregistratzea

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren www.hezkuntza.net orri nagusian (Home-an) sartu behar dira herritarrak. Bertan daudela, ***interneten bidez eskaerak biltzeko aukera iragartzen duen bannerra sakatu behar dute***.



Bannerra sakatu ondoren, zuzenean eskaerak elektronikoki izapidetzeko aukera ematen duen hasierako orrialdera sartuko da, eta herritarrak ondoren prozesuan erabiltzeko posta elektronikoko kontu bat erregistratu nahi izanez gero, **«Erregistratu» botoia** sakatu beharko du.




## 2.2 Erabiltzailearen datuak sartzea

Izapidetzeko orrian **«Erregistratu»** lotura sakatu ondoren, beste orrialde bat agertuko da eta erabiltzaileak ***nahitaez ondorengo datuak bete beharko ditu***:


Erregistratezeko dokumentu erregistratzaile bat sartzea derrigorrezkoa da: NAN-a edo AIZ-a. Holako dokumenturen bat ez izatekotan "Pertsona Id"-a erabili dezakezu. Identifikatzaile hau heziketa zentruan eskatu dezakezu.

Sarbide datuak

* Posta elektronikoa:
* Berretsi zure posta elektronikoa:
* Pasahitza:
* Berretsi zure pasahitza:

Datu pertsonalak

* Dokumentu mota: Aukera bat hautatu
* Dokumentu zkia.:
* Izena:
* Lehenengo abizena:
Bigarren abizena:
Baimena ematen dut nire datu pertsonalak egiaztatzeko

Balidazioa

amuger
* Irudiaren testua:
Ez duzu irudia ulertzen?

Onartu
Ezeztatu


* Dokumentu mota: NAN
* Dokumentu zkia.:
* Iraungipen-data:

1. ***Helbide elektronikoa eta berrespena:***bere helbide elektroniko baliagarri bat bete beharko du, eta helbide horretara posta elektroniko bat bidaliko du sistemak, erabiltzaileak ondoren aktiba dezan.

2. ***Pasahitza eta berrespena***: pasahitz bat sartu beharko du, baimendutako sarbiderik egon ez dadin.

3. ***Datu pertsonalak***:

   a. ***Dokumentu mota***: erregistratzeko hainbat aukera eskaintzen dituen zerrenda zabalgarria.

      Erregistratzeko, nortasun-agiri baliodun bat sartu behar da: NAN edo AIZ.

      Mota horretako identifikaziorik ez baldin badu, «Pertsona id.» zenbakia erabiliz eman dezake alta. Identifikazio-zenbaki hori ikastetxean eska dezake.

      - ***Dokumentu mota NANa bada:***


* Dokumentu mota: NAN
* Dokumentu zkia.:
* Iraungipen-data:

- ***Dokumentu mota AIZa bada:***




- ***Dokumentu mota Pertsona id. bada:***




- ***Dokumentu mota IFKa bada:***




b. ***Dokumentu-zenbakia***: NANaren kasuan, txartelaren 8 digituak eta kontrolerako letra nahitaez bete behar dira (tarterik gabe eta euren arteko karaktere berezirik gabe, esaterako: 11928474X). Bizileku-baimenaren edo bestelakoen kasuan, dagokion identifikazioa sartu.

c. ***Izena eta lehen abizena***: nahitaezkoak dira

d. ***Bigarren abizena***: nahitaezkoa da estatu espainiarreko herritarrentzat, eta aukerakoa atzerritarrentzat (ez baldin badute).

4. Jarraian, ezkerreko ***irudiak erakusten duen testua nahitaez sartu behar da.*** Ez baduzu irudia ulertzen, sakatu ***«Ez duzu irudia ulertzen?» lotura*** eta beste bat aterako zaizu.

5. Erregistroa (erabiltzailearen alta) bukatzeko, sakatu ***«Onartu»*** lotura.

## 2.2.1 Errorerik bada

***«Onartu»*** lotura sakatu ondoren, nahitaezko daturen bat sartu ez bada edo testua erakutsitako irudiari ez badagokio, errore bat gertatu dela jakinaraziko da eta ikono gorri baten bidez errorea duen elementua eta errore mota adieraziko dira.




## 2.2.2 Errorerik ez bada

***«Onartu» lotura sakatu ondoren inolako errorerik gertatu ez bada, mezu elektroniko bat bidaliko da erabiltzailearen posta elektronikoko kontura, egiaztatu eta erregistroa amai dezan*.**

## 2.3 Aktibazio-loturaren bidez postan erregistroa amaitzea

Erregistroa bukatu ahal izateko, erabiltzaileak erregistro-sistemak igorritako postan sartu eta lehen lotura sakatu beharko du.

Erregistroarekin jarraitu nahi ez badu eta sartutako datu guztiak ezabatu nahi baditu, mezuan erakutsitako bigarren loturaren gainean sakatu beharko du.



De: noreplay@hezkuntza.es
Enviado el: lunes, 24 de enero de 2011 20:50
Para: Edurne Gonzalez
Asunto: / Registro en el Sistema de Solicitud de Matrículas.

Oraintsu, posta elektroniko hori erabiliz, Matrikulak Kudeatzeko Sisteman erabiltzaile moduan erregistratu izatea eskatu duzu. Erregistroa osatzeko, mesedez egin ezazu klik ondorengo estekan:

http://www.mig.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/v56War/matOnlineOP/v56Registro.do?lang=eu&id=9A936EA4B2826FD4E044000000000000

Erregistratzea eskatu ez baduzu, utzi alde batera/ezabatu mezu hau edo, gurago baduzu, erregistroaren datuak ezabatzeko aukera duzu honako estekan klik eginda:

http://www.mig.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/v56War/matOnlineOP/v56Registro.do?lang=eu&del=9A936EA4B2826FD4E044000000000000

Eskerrik asko.

Recientemente has solicitado registrarte como usuario del Sistema de Gestión de Matrículas utilizando esta dirección de email. Para completar el proceso de registro, por favor, haz clic en el siguiente enlace:

http://www.mig.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/v56War/matOnlineOP/v56Registro.do?lang=es&id=9A936EA4B2826FD4E044000000000000

Si no has solicitado este registro, ignora/borra este mensaje, o si prefieres, puedes eliminar los datos de registro haciendo clic en el siguiente enlace:

http://www.mig.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/v56War/matOnlineOP/v56Registro.do?lang=es&del=9A936EA4B2826FD4E044000000000000

## 2.4 Aktibatzeko posta elektronikorik ez jasotzea

Erregistratu ondoren, erabiltzaileak ez badu gure kontutik aktibatzeko posta elektronikorik jaso, ***«Ez dut aktibatzeko posta elektronikorik jaso»*** lotura sakatu beharko du, eta aurretik erregistratutako posta elektronikoko kontu bat sartu, erregistroan erabilitako identifikazio-datuekin batera.




***Aktibatzeko posta elektroniko bat bidaliko da*** erabiltzailearen posta elektronikoko kontura.

## 2.5 Pasahitza gogoraraztea

Erabiltzaileak bere pasahitza ahaztuz gero, ***«Ez dut pasahitza gogoratzen»*** lotura sakatu behar du, eta aurretik erregistratutako posta elektronikoko kontua sartu.




***Sartzeko pasahitz berria jasotzen duen posta elektroniko bat bidaliko da*** erabiltzailearen posta elektronikoko kontura.

## 2.6 Helbide elektronikoa ahaztea edo baliogabea izatea

Erabiltzaileak posta elektronikoko kontua ahaztu badu edo dagoeneko baliogabea bada, ***«Ez dut gogoratzen edo ezin dut erregistroan emandako helbide elektronikoa erabili»*** esteka sakatu beharko du, eta posta elektronikoko kontu berria sartu, erregistroan erabilitako identifikazio-datuekin batera.




***Sartzeko pasahitz berria jasotzen duen posta elektroniko bat bidaliko da*** erabiltzailearen posta elektronikoko kontu berrira.

# 3 Eskerrak ematea

Jasotako arreta eskertzen dugu eta espero dugu dokumentu hau erabilgarri izatea.

Eskerrik asko.